

## Alga basoa.

Ispilu batean zehar egindako bidaiak bezala, pauso bakarra ematea nahikoa da ilunetan hontzorritz betetako muino batetik eta erreka txiki batetik, bat-batean itasoan barrena barreiatzeko.

Kantauri itsasoan, Gelidium ageri da Japoniar astigar baso bat bailitzan. Oso antzekoak dira aireak kulunkatzen dituen hostoen mugimendua eta Algek, itsasoaren korronteen bitartez, egiten duten mugimendua. Naiz belainoak edo itsasoko urak eguzkiaren izpiak estaliz joan, sakonerarekin iluntasuna ezartzen doa.

Kantauri itsasoan algen hazte prozesua maiatza eta abuztuaren artean ematen da. Orduan itsas ondoak, zelai leun eta trinkoa bihurtzen da. Udazkenarekin batera olatuek algak erazutzen dituzte, alga pilaketak sortuz ondartzetan. Alga multzo gehienak Muskizen, Horion, Donostian eta Jaizkibel mendiaren magalean aurkitzen den itsasertzean pilatzen dira. Kostaldeko biztanleek sarde baten bitartez algak otzaretan sartzen zituzten gero bidera eramateko.

1940. urtetik, alga hauek batzeko prozesuak berdinak dira: Lan gogor honetan idiez bultzatutako gurdiak erabiltzen ziren. Funtsean, bi modu existitzen ziren: Lehenengo moduan otzara soka bati lotzen zen eta soka ardatz batean zegoen, gorpil baten inguruan irristatzen zen zen. Honen bitartez otzara bide ondora igotzen zen.

Bigarren modua, gorpilak zituen kaxa batean oinarritzen zen gorpilak kable biren gainean mugitzen ziren. Gaur egun ere aurkitu dezakegu teknologia hau kostaldean baina bere erabilera galduta.

Ohitura izan da algak ur azpian sartuz batzea ere. Ur azpiko alga biltzaileek, algak biltzen zituzten gero ur gaziko piztinetan mantentzeko. Lan gogor eta luzea zen.

1970. amarkadan, arrantzale asko erakarri zuen Gelidiumaren apreziazioak, diru sarrerak gehitzeko modua ikusi zuten algetan. Merkatu horren aldaketak, arrantzan aldaketa bat eragin zuen: algak biltzetik algak sustraitik ateratzera iritsi ziren, alga zelai ugari suntsitu ziren eta horrek ekosistemaren aldaketa bortitza ekarri zuen.

Urteekin algak zuhaitzik artzeak bere desagerpena jarraikorra ekarri zuen. 1982. urtean Eusko Jaurlaritzak algen bilketa debekatzeko arrazoia izan zen hau eta momentu artatik aurrera bildu zitezkeen alga kopurua murriztu zuten eta modu tradizionalen egiten ez ziren bilketa guztiak debekatu zituen. Arau berrien bitartez eta denboraren ondorio geldiezina eta gero itsasondoak berreskuratu ziren.

Gaur egun berriz gozatu dezakegu itsasoko korronteez mugitzen dituzten alga basoez, berriz gozatu dezakegu gelidiumaren datzarekin, beti izan den bezala.